

**LEONARDO BOFF**

# **Bakegilearen otoitza**

**Asisko Frantziskoren Otoitzaren  
gaurko irakurketa berria**

Jatorrizko hizkuntzako titulua eta argitaratzailea:  
*A oração de São Francisco*  
*Uma mensagem de paz para o mundo atual*  
Ed. Sextante, Rio de Janeiro, 1999

*Euskarazko itzulpena*

Tomas Sarasola, Paulo Agirrebaltzategi

ISBN: 978-84-7240-187-7

L.G.: B-43518-2005

© (*Jatorrizko testua*): Leonardo Boff, 1999

© (*Euskarazko testua*): Arantzazuko Frantziskotar Probintzia

Arantzazuko Edizio Frantziskotarrak

Villamonte gaztelua, 2 - 4º. 01007 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945147224 info@edicionesfranciscanasarantzazu.com

www.edicionesfranciscanasarantzazu.com

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70).

# Aurkibidea

Asisko Frantziskoaren Bakearen aldeko Otoitza .....	9
Asisko San Frantzisko gure artean bizi da gaur egun .....	11
“San Frantziskoren Otoitza”: Nola sortu zen.....	15
Periferiatik erdigunerantz.....	16
Bakearen aldeko Otoitza: “San Frantziskoren Otoitza” .....	18

## JAUNA, EGIN NAZAZU ZEURE BAKEAREN ZERBITZARI

Jauna! .....	25
Zergatik ez dago bakerik? .....	29
Errealitatearen argi-ilunak .....	30
Erljioaren betekizun politikoa .....	33
Bakerik ezaren sakoneko arrazoiak.....	35
Bakerik eza: norgehiagokaren eta bekaizkeriaren ondorio .....	35
Bakerik eza: kontzientziaren eta herioaren arteko tirabira.....	39
Bakerik eza: jatorrizko Iturriarekiko loturaren etena .....	42
Zer da bakea? .....	47
Bakea, ordena errespetatzea. Zein ordena? .....	48
Kreatzaileak nahitako ordena, Erdi Aroko kristau ordena ote?.	48
Munduko ordena ekonomiko berria: Ordena naturala ote?.....	50
Ekintza sozialaren gain oinarrituriko ordenaren erantzule.....	52
Bakea: mugimenduaren oreka. Zein oreka?.....	53
Bakea: justiziaren emaitza .....	54
Bakea: bihozkidetasuna eta bihozkortasuna.....	56
Zure bakea–gure bakea: Jainkoaren bakea eta giza menia.....	58
Nola izan bakearen zerbitzari edo tresna? .....	63
Zer da tresna izatea?.....	63
San Frantzisko, Jainkoaren bakearen tresna.....	65
Bakea norberaren baitan.....	65

Bakea anaien elkartean.....	67
Bakea zuzengabekeriak dauden gizartean.....	69
Bake iraunkorra izadiarekin eta Ama Lurrarekin.....	71
Bake modurik bikainena: Nor bere buruaz ahaztea .....	72

#### OTOITZA LERROZ LERRO

Gorrotoaren lekuan, maitasuna jar dezadala .....	75
Irainaren lekuan, barkamena jar dezadala.....	79
Liskarraren lekuan, batasuna jar dezadala .....	83
Zalantzaren lekuan, sinesmena jar dezadala .....	87
Okerraren lekuan, egia jar dezadala.....	91
Desesperantzaren lekuan, esperantza jar dezadala.....	95
Tristuraren lekuan, poza jar dezadala .....	99
Ilunpearen lekuan, argia jar dezadala.....	103
Maisu! .....	107
Areago besteak poztea neuretzako poza baino .....	111
Areago besteak ulertzea, neuretzako ulerpena baino.....	115
Areago besteak maitatzea, neuretzako maitasuna baino.....	119
Besteei ematea da norberak hartzeko bidea .....	123
Besteei barkatzea da norberak barkamena iristeko bidea .....	127
Norbera hiltzea da betiko bizitzarako bidea.....	131

**ASISKO FRANTZISKOAREN  
BAKEAREN ALDEKO OTOITZA**

*Jauna:*

*Egin nazazu, Zeure bakearen zerbitzari:  
Gorrotoaren lekuan, maitasuna jar dezadala,  
Irainaren lekuan, barkamena jar dezadala,  
Liskarraren lekuan, batasuna jar dezadala,  
Zalantzaren lekuan, sinesmena jar dezadala,  
Okerraren lekuan, egia jar dezadala,  
Desesperantzaren lekuan, esperantza jar dezadala,  
Tristuraren lekuan, poza jar dezadala.  
Ilunpearen lekuan, argia jar dezadala,*

*Maisu:*

*Bila dezadala nik areago:*

*Besteak poztea, neuretzako poza baino,  
Besteak ulertzea, neuretzako ulerpena baino,  
Besteak maitatzea, neuretzako maitasuna baino,  
zeren eta,  
Besteei ematea baita norberak hartzeko bidea,  
Besteei barkatzea baita norberak barkamena iristeko bidea,  
Norbera hiltzea baita betiko bizitzarako bidea.*

Sarrera

## **Asisko San Frantzisko gure artean bizi da gaur egun**

Historiako giza lagun handietakotzat dauka mundu osoak San Frantzisko Asiskoa (1181-1226), berarengatik harro egoteko adinakotzat. Haren bizitzari begiraturaz, betetzeko modukoak ageri zaizkigu geure bizitza osoan metatu eta geure bihotz barruan urrumatu ditugun ametsok: Jainkoarenganako, Aita eta Ama guztiz ona den Jainkoarenganako, maitasunezko harreman samur hura; gauza guztiak xalotasunez maitatzeko modu hura, horiek denak senidetzat hartuz; bihotzaren bultzadak eta arrazoiaren eskakizunak bateratzeko oreka hura; urrunekoentzako eta bestelakoentzako harrera-modu bero hura, urrunekoak hurbileko eginez eta hurbilekoak anaia bihurtuz; aldaezinekoak alaitasunez onartzeko jarrera; ezarrita datozkigun lege eta aginduei buruzko askatasun xaloa; heriotza baretasunez, bizitzaren senide eta adiskidetzat, onartzeko gaitasuna.

Onginahi, senidetasun eta bakezko espiritua zabaldu zuen San Frantziskok gizartean, eta gaur arte luzatu da mendez mende haren oihartzuna. Horren adierazgarri dira munduan San Frantziskoren izena daramaten hiri, ibai, mendi, eliza, eskola, kale eta erakundeak, eta

haren omenez darama hainbat lagunek ere Frantzisko (Patxi, Praisku, Frantxua, Pako) izena, Xabierko San Frantziskok, besteak beste.

Are gehiago: gure arteko hainbat jokabide, sinbolo, ideia eta ametsek berez garamatzate San Frantzisko Asiskoarengana, horien iturria bera delakoan edo. Eta ez da harritzekoa; izan ere, bizirik eta gure eredu jarraitzen baitu hark gaur egun jendeen bihotz-gogoetan; eta baita gaurko kultur mugimendu askotan ere, hala nola, ez-biolentzia, senidetasun unibertsala, animalianganako maitasuna, ekologiaren ardura, bizitzeko bizipoza aldarrikatzen duten mugimendu sozialetan; horiek denak dira, gainera, gure garaiko kulturaren bilaketa espiritualaren adierazgarri garrantzizkoak.

Gure garaiko jendearengan bada frantziskotar espiritualitatearen zantzu lausorik; Asisko Frantziskoren, Asisko Klararen eta horien lehen lagunen esperientzian dauzka bere sustriak espiritualitate horrek. Hona horren ezaugarriak: sotiltasunez bizitzea, izadian Jainkoa aurkitzea, izaki guztiak egiazko maitasunez maitatzea, gizon-emakumeen ontasunean sinestea ia-ia haurren erara, eta alaitasuna, bizitzako dramarik zaugarrienen aurrean ere ikaratuko ez den alaitasun-jarrera.

Bakegilearen Otoitza –Bakearen aldeko Otoitz hau–, “San Frantziskoren Otoitza” izenez ere ezaguna da, eta gure gaurko munduan zabalduriko halako espiritualitate lausoaren adierazgarriak nabarmentzen dizkigu. Otoitz hau ez da Asisko Frantzisko historiko hark berak zuzenean idatzia, baina bai haren ildokoen fedeko San Frantziskoren espiritualitateak sortua. Asisko Frantzisko da otoitz honen aita espirituala; horregatik bera da egilea,

“egile” hitzaren adierarik sakonen eta zabalenean. Asisko Frantzisko bizi izan ez balitz, seguru asko ez zuten sekula idatziko ez zabalduko otoitz hau, eta are gutxiago bihurtuko zen, bihurtu den bezala, gaur eguneko otoitzik ekumenikoetariko. Izan ere, erlijio guztietako fededunek eta edonolako mugimendu espiritualetako jarraitzaileek errezatzen dute San Frantziskoren bake-otoitza.

Gizon-emakume guztiok bake eta maitasun-espíritu berean elkartzeko gai da otoitz hau. Une batez besterik ez bada ere, denok benetan senide garela sentiarazten gaitu giza familian eta familia kosmiko handian; areago, Jainko-familiako seme-alaba sentiarazten gaitu.

“Bakearen aldeko Otoitzaren” esanahia sakonduko dugu, bada, hemen, horren ezkutuko aberastasunak argitara ateratzeko eta gutako bakoitzaren barruan lotan dauden Frantzisko eta Klara iratzartzeko.